AGINDUA, 1991ko ekainaren 11koa, Nobela, Poesia, Antzerkia eta Saiakera modalitateetan literatur sorkuntza bultzatzeko xedez, 1991. urterako Euskal Herriko Gaztelerazko Sari Literarioak konbokatzen dituen 1991ko maiatzaren 2ko Agindua (maiatzaren 14eko E.H.A.A., 98. zbkia) aldarazten duena. 5190

AGINDUA, 1991ko ekainaren 12koa, Kultura eta Turismo Sailburuarena, euskaraz argitaratzen diren aldizkarientzako dirulaguntzen emanketa arautzen duena. 5191

ORDEN de 11 de junio de 1991, por la que se modifica la Orden de 2 de mayo de 1991 (B.O.P.V. núm. 98, de 14 de mayo) por la que se convocan los Premios Literarios del País Vasco en Castellano en su edición 1991, con el fin de impulsar la creación literaria, en las modalidades de Novela, Poesía, Teatro y Ensayo. 5190

ORDEN de 12 de junio de 1991, del Consejero de Cultura y Turismo, por la que se regula la concesión de subvenciones a las revistas que se editan en euskara. 5191

# Beste zenbait Iragarpen Ofizial
# Otros Anuncios Oficiales

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

IRAGARPENA, Lan Zuzendaritzarena, «Asociación de Centros Homologados de Enseñanza de Peluquería y Estética de Euskadi» (Achepee) izeneko Lanbide Erakundearen Estatutuei buruzko agiriak aurkeztu direla argitara ematen duena. 5195

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

ANUNCIO de la Dirección de Trabajo, por el que se hace público que ha sido depositada la documentación relativa a los Estatutos de la Organización Profesional denominada «Asociación de Centros Homologados de Enseñanza de Peluquería y Estética de Euskadi» (Achepee) 5195

# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## HERRIZAINGO SAILA

**1982**

AGINDUA, 1991ko ekainaren 11koa, Herrizaingo Sailburuarena, Zezen Ikuskizun Tradizionalak arautzen dituena.

Zezen Ikuskizun Tradizionalen gaur egungo egoerak araudi berri bat egitea eskatzen du, Euskal Autonomi Elkartearen berenezko eta antolakuntzazko berezitasunak kontuan har ditzana eta beren apartekotasuna dela eta tratamendu egokia eskatzen duten alderdiei erantzun diezaiena.

Hori dela eta, Autonomia Estatutuko 10.38 atalaren eta otsailaren 6ko 15/1991 Dekretuko edukinaren arabera, Euskal Autonomi Elkarteak duen aginpide esklusiboaren indarrez, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*— Honako agindu honen helburua da Euskal Autonomi Elkarteko eremuan egingo diren Zezen Ikuskizun Tradizionalak araupetzea. Zezen ikuskizun tradizional deitzen zaie entzierro tradizionalei, abereak askatzeari, zekorrak toreatzeari, sokamuturrei eta abereak hiltzea ez dakarten antzeko beste ikuskizunei.

*2. atala.*— Edozein Zezen Ikuskizun Tradizional egin ahal izateko Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak eman beharko du aurretik baimena.

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

**1982**

ORDEN de 11 de junio de 1991, del Consejero de Interior, por la que se regulan los Espectáculos Taurinos Tradicionales.

La realidad actual de los Espectáculos Taurinos Tradicionales requieren la dotación de una nueva regulación que tenga en cuenta las peculiaridades sustantivas y organizativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco y que dé respuesta aquellos aspectos que por su especialidad requieran un adecuado tratamiento.

Por ello, en virtud de la competencia exclusiva que ostenta la Comunidad Autónoma del País Vasco, artículo 10.38 del Estatuto de Autonomía y del contenido del Decreto 15/1991, de 6 de Febrero,

DISPONGO:

*Artículo 1.*— Es objeto de la presente Orden la regulación de los Espectáculos Taurinos Tradicionales que se celebren en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco entendiéndose por tales los encierros tradicionales, suelta de reses, toreo de vaquillas, sokamuturras y aquellos de naturaleza similar que no lleven aparejada la muerte de las reses.

*Artículo 2.*— La celebración de cualquier Espectáculo Taurino Tradicional requerirá la previa autorización administrativa otorgada por la Dirección de Juego y Espectáculos del Gobierno Vasco.

*3. atala.*— Zezen Ikuskizun Tradizionalen antolatzaileek eskabide orri bat aurkeztu beharko dute Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzan ikuskizunaren eguna baino hamar egun lehenago gutxienez. Eskabide orri horretan sustatzailearen izena eta hala badagokio, bere ordezkariena adierazi beharko da, hala nola ikuskizuna zein egunetan, zer ordutan eta zein motakoa izango den. Eskabide orri hori agirisorta honekin batera aurkeztu beharko da:

a) Udalak ikuskizunaren izaera tradizionalari buruz egindako aldeko txostena, hala nola ikuskizuna egin ahal izateko baimena.

b) Osasunketa lanariak dituen anbulantzia bat egongo dela egiazta dezan agiria. Ikuskizunak dirauen bitartean zernahi gerta ere, esklusiboki parte hartzeko prest egon beharko dute lanariok.

c) Jaialdiaren zuzendaritzaz arduratzen den zezen munduko profesional batekin egindako kontratua, hala nola istripuak galerazteko eta partehartzaileen segurtasuna zaintzeko gaituak dauden laguntzaile edo boluntarioen izenen zerrenda. Pertsona horiek ikuskizunak dirauen bitartean bertan egon beharko dute eta kolore biziko besoko baten bidez edo antzeko zerbaiten bidez ezagutaraziko dute beren burua.

d) Arkitekto edo Arkitekto Teknikoren batek egindako egiaztagiria, hala egokituz gero dagokion Kolegioaren oneritziarekin, instalakuntzak edo ikuskizuna egiteko prestatutako lekuak beharrezkoak diren sendotasun eta segurtasun baldintzak betetzen dituela adieraziz. Eserlekuek, non egonkorrek non kendu eta jartzen direnek, jendetza handia biltzen duten ikuskizunei buruzko 2816/1982 Errege Dekretuak zehazten dituen segurtasun baldintzak bete beharko dituzte. Instalakuntzek mailadia izatea gertatuz gero, mailadi horren sendotasun eta segurtasunari buruzko egiaztagiria egin beharko da.

e) Memoria azalgarria, ikuskizunaren izaerari buruzkoa eta ospatuko den lekuari nahiz ibilbideari buruzkoa, ibilbiderik egongo balitz.

f) Ikusleak edo partehartzaileak jasan ditzaketen arriskuei aurre egiteko eta ikuskizuna dela eta bestek jasan ditzaketen kalteei aurre egiteko Istripu eta Erantzunkizun Zibileko Aseguru Kolektiboaren kopia. Aseguratutako dirutzari dagozkion gutxieneko diru kopuruak, aldian-aldian berrituko direnak, honako hauek izango dira:

5.000.000 PTA, heriotzagatik edo ikuskizunean gertatutako istripuen ondorioz elbarri gelditzeagatik.

15.000.000 PTA, kalteengatiko erantzunkizun zibilari aurre egiteko.

g) Abereen garraioari buruzko agiria eta abere horiek Euskal Autonomi Elkartean indarrean dagoen osasunketa araudi guztia betetzeari buruzkoa, gai den organuak emandakoa. Beste Autonomi Elkartetako abereak erabiltzea gertatuz gero, abere horien jatorriari eta osasunketari buruzko gida eta indarrean dagoen araudiak ohartematen dituen osasunketa frogak gainditu izanaren egiaztagiria aurkeztuko dira.

h) Abeljabearen egiaztagiria, aberearen pisua egiaztatuz, bizitan ezingo bait du 310 kg. baino gehiago izan.

Ikuskizuna antolatzeak ekar ditzakeen gastu guztiak ikuskizun hori antolatzen duen enpresak ordaindu beharko ditu.

*Artículo 3.*— Los organizadores de Espectáculos Taurinos Tradicionales deberán presentar ante la Dirección de Juego y Espectáculos, con al menos diez días de antelación a la celebración del mismo, instancia en la que se hará constar la identidad del promotor y de sus representantes, en su caso, la fecha y el horario del festejo y su modalidad, debiendo acompañarse necesariamente los siguientes documentos:

a) Informe favorable del Ayuntamiento sobre el carácter tradicional del festejo, así como la autorización para su celebración.

b) Acreditación de la presencia de un servicio de ambulancia dotada de personal sanitario, que se hallará disponible en exclusiva durante toda la duración del espectáculo.

c) Contrato suscrito con un profesional taurino que se encargue de la dirección del festejo así como una relación de colaboradores voluntarios que estén capacitados para evitar accidentes y velar por el orden y seguridad de los participantes. Dichas personas deberán estar presentes durante toda la duración del espectáculo y serán identificados mediante un brazalete de color vivo u otro medio similar.

d) Certificado de un Arquitecto o Arquitecto Técnico visado, en su caso, por el Colegio respectivo acreditando que las instalaciones o recinto preparado para la celebración del festejo, reune las condiciones de seguridad y solidez suficientes debiendo cumplir las plazas, tanto las permanentes como las portátiles, las condiciones de seguridad que determina el Real Decreto 2816/1982 sobre espectáculos de amplia concurrencia. Si las instalaciones tuvieren graderío se certificará acerca de la solidez y seguridad del mismo.

e) Memoria descriptiva de la naturaleza del espectáculo y del lugar de la celebración o recorrido, si lo hubiere.

f) Copia de la Póliza del Seguro Colectivo de accidentes y de Responsabilidad Civil para la cobertura de riesgos que puedan afectar a espectadores y participantes, así como a terceros que pudieran resultar perjudicados con motivo del espectáculo. Las cuantías mínimas en cuanto al capital asegurado, que serán objeto de revisión periódica, serán las siguientes:

5.000.000 de pesetas, por muerte o invalidez causadas por accidentes en el espectáculo.

15.000.000 de pesetas, para atender la responsabilidad civil por daños.

g) Documento de traslado de las reses y de cumplimiento de toda la normativa sanitaria vigente en la Comunidad Autónoma Vasca, expedido por el organismo competente. Si se utilizasen reses de otras Comunidades Autónomas se presentará la correspondiente guía de origen y sanidad y certificación de haber superado las pruebas sanitarias que contempla la normativa vigente.

h) Certificado del ganadero acreditando el peso de la res, que en ningún caso podrá superar los 310 kilogramos en vivo.

Todos los gastos devengados de la organización del espectáculo, correrán a cargo de la empresa organizadora.

*4. atala.*— abereei adarren puntak moztu egin beharko zaizkio eta larruzko edo antzeko beste bigungarri zerbaitetan bildu. Ez da inola ere onartuko adarrak bestelako materialetan bilduak dituzten abereek partehartzea.

*5. atala.*— Zerbitzuan dauden albaitariek aldez aurretik aztertu beharko dituzte abereak, osasun egoera orokorra, itxurazko pisua, adarrak bilduak dituzten modua, adarrak eta oro har ikuskizunaren ezaugarriekin zerikusia duen beste zernahi zehazteko. Arriskutsuak direla uste dituztenak alde batera utzi ahal izango dituzte.

*6. atala.*— Ikuskizun hauetan erabilitako abereak ezingo dira gero ohizko moduan toreatzeko erabili. Ohizko moduan toreatzea esaten zaio zezenketak, zekorketak, txahalketak eta zezen-jaialdi barregarriak egiteari.

*7. atala.*— Gaueko 10etatik goizeko 7ak arte debekatua dago zezen ikuskizun tradizionalak egitea.

*8. atala.*— Zezen ikuskizuna edo ikuskizun horren aldi bat behintzat zezen plaza egonkor edo kendu eta jartzen denetako batean egiten bada, ikuskizun hori antolatzen duen enpresak kontrolatuko du bertara joaten den jendearen sarrera, mailadietan sar daitekeen baino jende gehiago bil ez dadin.

*9. atala.*— Ezin izango da ikuskizunetan abereak zauritu, ziztatu, jo, oratu edo haiekin ezein modutako jokaera ankerrik izan.

*10. atala.*— Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Ataleko funtzionariek zezen ikuskizun tradizionalen ospakizuna kontrolatuko dute eta lehen azaldutako baldintza horiek bete daitezen saiatuko dira; ikuskizuna bertan behera utzi ahal izango dute ondoko kasu hauetan:

a) Ikuskizuna egiteko baimenik ez dagoenean edo Agindu honek eskatzen dituen betekizunetakoren bat betetzen ez denean.

b) Erabilitako abere guztiak arriskugarriegiak direnean, horretarako izendatutako Albaitari Ofizialari aholkularitza eskatu ondoren.

*11. atala.*— Agindu honetan ohartemandakoa ez betetzea, zezen ikuskizunen inguruko ahalmen administratiboei buruzkoa den apirilaren 4ko 10/1991 Legean adierazitakoaren arabera zigortuko da.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1991ko ekainak 11.

Herrizaingo Sailburua,
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.

*Artículo 4.*— Las reses deberán presentar sus defensas despuntadas y emboladas con cuero y almohadillado o similar. En ningún caso se permitirá la participación de reses que hubieran sido emboladas con otra clase de materiales.

*Artículo 5.*— Las reses serán reconocidas previamente por los Veterinarios de Servicio para determinar su estado sanitario general, peso aparente, embolado, defensas y en general cualquier aspecto de interés en relación con las características del espectáculo, pudiendo desechar las que a su juicio mostrasen peligrosidad.

*Artículo 6.*— Las reses utilizadas en estos espectáculos, no podrán destinarse posteriormente a la lidia ordinaria entendiéndose por tal concepto, las corridas de toros, novilladas, becerradas, festivales y toreo cómico.

*Artículo 7.*— Queda prohibida la celebración de festejos taurinos tradicionales durante el período comprendido entre las 10 de la noche y las 7 de la mañana.

*Artículo 8.*— Si el espectáculo taurino se desarrolla en todo o en parte en una plaza de toros permanente o portátil, la empresa organizadora controlará la entrada al público asistente a efectos de que los graderíos no superen el aforo a que estuvieran destinados.

*Artículo 9.*— No se permitirá en ningún espectáculo herir, pinchar, golpear, sujetar o tratar de cualquier modo cruel a las reses.

*Artículo 10.*— Los Funcionarios de la Unidad de Juego y Espectáculos del Cuerpo de la Policía Vasca-Ertzaintza controlarán la celebración de los espectáculos taurinos tradicionales y velarán por el cumplimiento de las condiciones anteriormente expuestas, pudiendo suspender la celebración del espectáculo:

a) Cuando el espectáculo no esté autorizado o no se cumplan alguno de los requisitos exigidos por esta Orden.

b) Cuando todas las reses empleadas muestren un grado de peligrosidad excesivo, previo asesoramiento del Veterinario Oficial designado al efecto.

*Artículo 11.*— Las infracciones a lo previsto en la presente Orden se sancionarán conforme a lo previsto en la Ley 10/1991, de 4 de Abril, sobre potestades administrativas en materia de espectáculos taurinos.

DISPOSICION FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 11 de junio de 1991.

El Consejero de Interior,
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.